

» TELEGRAMA

Irailaren 24an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren lehen kanporaketa** Donibane Lohitzuneko Ravel entzutegian, 17:00etan: Amets Arzallus, Egoitz Zelaia, Kerman Diaz, Miren Artetxe, Nahia Sasco eta Ramuntxo Christy bertsulariak **STOP José Ocárizek** *El Madrid de Blas de Otero* liburua aurkeztuko du irailaren 26an, 19:00etan, Iruñeko Katrakrak aretoan **STOP** Bilboko Azkuna Zentroan (Alondegian), irailaren 28an (20:00etan) **Maysaloun Hamoud** zuzendariaren *In Between* filma (Israel/Frantzia) emanen dute jatorrizko arabiera/hebreera hizkuntzetan **STOP**

» DISKOA

Itsaso zabalagoetarantz



Iker Barandiaran



Lurrik ez begi bistan

IZEBERG

Autoekoizpena, 2016

Horixe da Euskal Herriko musika panoraman gertatzen dena, hain zuzen ere. Izebergaren muturra fokuen azpian eta ur azalean denon begi bistan egon arren, gainontzeko eszena guztia oharkabean gelditzen dela burua ur azpian sartzen ez badugu behintzat. Eta nork dauka jakin-mina eta gogoia norbera "busti" eta azpian dagoena arakatzeko? Bada, zoritxarrez, jende gutxi. Baina guk besoa ukondoraino sartu eta gehienetan egin ohi dugun bezala, horietako bat atera dugu orriotara.

Oharkabean izan dut laukote honen berri eta beraien DNA eta zazpi abizenak Usurbilen daudela egiaztatu ostean, ohartu naiz talde honetako partaideak gazteak izanik ere zakur zaharrak direla. Hain zuzen ere, herri gipuzkoar horretan azken urteetan izan den ekimen musikalaren protagonista sutsuak direla laurak. Hona hemen Izebergaren aurrekariak: hala nola, Odolaren Mintzoa rock taldea, Mendeku Itxua heavya eta Hotzikara thrash-metaleroa, hain zuzen

ere. Eta diskoa osatzen duten zazpi kantuak herriari bertan, Haritz Harreguyk gidatzen duen Higain estudio dotorean grabatu dituzte. Zertarako, bada, kanpora jo, herriari bertan luxuzko halako profesionalak izanda? Kantuen nahasketak, berriz, Harreguyrekin harreman estua

duen Juan Hildagok egin du Madrilgo Mastertips Mastering-en.

Aipatutako musikariek jauzi bat harago egin nahi izan dute eta iraganeko heavy estiloa eta thrasharen gordintasuna melodia borobilagoak dituzten konposizioetan barneratu dituzte, rockean ondo blaitutako doinuen agindupean. *Gordeleku bat* kanta energiadun pop-rocka da, distiratsua, oso garbia eta hard-rocketik eta heavytik ere edaten duena. Abesteko erak Gorosabel anaiak (Su Ta Gar / EH Sukarra) ekartzen dizkit gogorra. *Zainetan*, berriz, xuxurlatuta abiatzen da Loreleiren antzeko doinueta, baina intentsitatea gehituta Governors-en jantzia hartzen du ia eta bere baitan desertuko riffak ere batzen ditu. Dotorea! *Har(r)ia*kek ere garapena bizi du bere baitan, eta popetik, power-popa eza gutu, hard-rocka dastatu eta wah-wah hankapetakora igarotzen da, gaiztotuz. *Eraldatu* eraldatzailea eta zapaltzailea da norbaiten buruan ideia sortu zen unetik: baxu sarkorra, gitarra "killer" a eta tarte metalero zein stonerrak ditu. *Zabaldu atean* antzematen da odolean daramaten heavyaren kadentzia duen balada garratza, nahiz eta hardcore melodiko metaleroa ere bere gain hartzen duen. *Itzalitako izarrak* ere thrash-metalak bere lekua hartzen du. Eta, azkenik, *Insomnioen gaua* rock jostariaren eta heavyaren arteko abentura da. Hitzak idazteko, baina, Usurbildik kanpo jo dute. Beñat Gaztelumendi, Haritz Casabal eta Jokin Labayenen laguntza izan dute. ■

Izeberg talde usurbildarra.

